

FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Gure enpresak bere jarduera aurrera eraman ahal izateko, beharrezkoa izango du beste enpresa batzuekin aliantzak egitea. Aliantza hauek, egoeraren arabera, mota ezberdinetakoak izango dira.

Lehenik eta behin, gure enpresarentzat oso garrantzitsua da bere jarduerarentzat erabiltzen dituen produktuak bertakoak eta kalitatezkoak izatea. Hori dela eta, hornitzaileekin aliantzak egingo ditugu eta, fidagarritasunaren truke, prezioak aproposagoak izaten saiatuko gara. Nahiz eta hori egin, enpresaren baloreek bultzatzen dute hornitzaileei tratu justuak ematea eta ez kondizio neurrigabeetan gurekin jardutea.

Bestalde, gure sektoretik kanpo dauden enprekin tratuak egitea beharrezkoa izango litzateke. Adibidez, gure instalazioetan sukaldaritza ikastaroak eskaini ditzakegu eta, horretarako, irakasle bat beharko genuke.

Jarraitzeko, jakina da gure enpresak lehiakideak izango dituela eta, agian, hauekin paktuak egitea ere interesgarria izango litzateke. Badakigu ere, enpresa batzuek kantitate handiak batera erosten dituztela, horrela hornitzaileen prezioak txikiagoak izateko. Saltzen ditugun produktuen prezioa altua denez, gure produktuak merkeago erosteko aukera izango bagenu, orokorrean dena errentagarriagoa izango zen guretzat eta gure bezeroentzat.

Ondorioz, gure enpresarentzat aliantzak egitea beharrezkoa izango da.

